

INGURUMENA

Argiñarizko zabortegia zigilatzea

Argiñarizko zabortegia 1977. urtean hasi zen ustiatzen. 1992an, hau da, Gongorako Hiri Hondakinak Tratatzeako Zentroa inauguratu zenean, itxi eta zigilatu zen.

Egun, zigilatuta 25 urte baino gehiago eman ondoren mantentze-lanak eginik, gunea erabat lehengoratu dela esan daiteke. Zeuden tximiniak kendu ziren eta tokia eman zitzaion Girgillaoko Udalari, ehizaren eta abeltzaintzaren arloko aprobetxamendua egin dezan. Dena den, zabortegian sortutako lixibiatuen eta bertan dagoen istilean jasotakoen kontrolak egiten jarraitzen da, eta bai zabortegiaren urari beheiti dagoen errekan jasotakoenak ere. Izan ere, Ebroko Ur Konfederazioak emandako azken baimenarekin lotutako eskakizuna da.

Lixibiatuak biltzeko putzuan gauzatutako jarduketa nabarmendu behar da, "hegaztiak salbatzeko" sistema bat jokatuta (itotzea ekiditeko). Zehazki, Espainian Bonelli arranoa (*Hieraetus fasciatus*) berreskuratzeko Nafarroako Gobernuak hartutako neurrietako bat da.